

MITOAK, ERLIJIOA, ELEZAHARRAK

Gizakiak, gizaki denetik, erlijioak erabili ditu bere izateari zentzua aurkitzeko, eta munduari, unibertsoari eta oinarritzko galdera filosofikoei arrazoia eta funtsa bilatzeko; nondik gatoz? zer gara? nora goaz? zergatik hau dena? galderen erantzuna miltzeko.


Mitoak eta elezaharrak helburu berdina dute ipuin eta kontakizunetz baliaturik.

Mitoa beti izadiaren sortzeari, jaiotzari edo heriotzari buruzko galdera existentzial batekin lotuta dago. Eta gainera elkarren aurkako bi ideiak osatzen dituzte: sormena deuseztapenaren aurka, bizitza heriotzaren aurka, jainkoak gizonen aurka, e.a. Azken finean bi polo horien adiskidetzea dute helburu, gure bizi-larritasuna uxatzeko asmotan.

Elezaharrak berriz, giza izaeraren atal izanik, kultur guztietan aurkitzen ditugu. Kontakizun mitikoen bidez izadia eta mundua xedatzen zuten eta gizakia unibertsoaren aurrean kokatzen zuten.

Gero, zibilizazioa sendotuz joan ahala, bere antzinako garrantzia galduz joan dira, azkenean sineskeria edo eta bitxitasun kultural bihurtu arte.

Gure mitologiari dagokionez, Kantauri-Akitaniako Paleolitiko-ko ikonografian oinarriturik omen dago: hasieran jainkoak zenbait espezieetako abere edo izaki antropomorfoen itxura hartzen zuten. Gero Neolitikoan antzinako indoeuropar kulturaren mitoe-kin aberastu zen: eguzki, ilargi, lur-indar, ortzi, laino, erreka eta ibaiei lotutako mitoe-kin hain zuzen. Erromatarren erlijioak ere bere eragina izan omen zuen batik bat gure numenak bere mitologiaren hizkuntzara itzuli zituelako.



Gero kristautasuna izan da bere indar historikoaren poderioz “bataiatu”, limatu eta nolabait eraldatu dituen faktorea.

Baina denez gain mito horiek sortu ziren garaiko indarra gordetzen dute, hots, gizakiaren barne muina sortzeko gai den poesia eta grina osoa biltzen dute.

Edozein kasutan zalantzarik ez dago gure mitologiak nortasun sakona eta aberatsa duela.




Bada, lainopean agertzen zaigun mundu liluragarri honetan erle baten antzera lore batzuen bila joan gara eta hona hemen zein nolako bitxiak agertu zaizkigun.

Juan Mari Arrizabalaga




1. EGUZKILOREA

Espiritu gaiztoek gauzez erasotzen zieten gizakiei eta baien ondasunei. Ama Lurrak, baiak uxatzeko, ilargia sortu zuen gauerako eta eguzkia egunerako. – Ama Lurrak Ilargia eta Eguzkia eman dizkigu opari. Egunez arazorik ez dugun arren, gauzez jeinuek irten eta eraso egiten digute. Lurrak esan zien: - Lore eder bat sortuko dut zuentzat oso ederra, eta gaueko izakiek bura ikustean Eguzkia bera dela usteko dute. Eta Ama Lurrak Eguzkilorea sortu zuen, gure etxeak espiritu gaizto, azti, lamia, ekaitz eta tximistetik defendatzeko.



2. URKAMENDIA. GABIRIA, GIPUZKOA

Urkamendia, “rollo” ere deitu izan zaiona, barrizko zutabe bat da, kono formako errematearekin, obitura zenez berrietako sarreretan eraikia. Urkamendiek uztaiak zituzten beriotza zigorra jasotzen zutenak zintzilikatzeko, baina gatzkileak eta lapurrak jendaurrean zigortu eta lotsarazteko ere erabiltzen ziren. Urkamendi bonek 3,85 metroko luzera du, eta burdina forjatuzko gurutze bat du goian; horrexegatik bebarbada mantendu abal izan da gaurdaino, Kadizko gorteek urkamendiak eraisteko agindua eman aurretik kristautu zutelako.




3. JENTILZUBI. DIMA - BIZKALA

Harrizko arku natural barrigarria, uraren bigaduraz sortua. Kondairak dioenez, jentilak (neurritz gaineko indarra zuten gizaki basatiak, mendietan bizi zirenak eta kristau egin nahi izan ez zutenak) inguruetako haitzuloetan bizi ziren eta Urrusti menditik beste aldera salto egiteko eraiki omen zuten zubia. Dena den, leku hau uxa-ehizarako erabili izan zutela uste da.




4. ARGINETA. ELORRIO - BIZKAIA

Nekropoli barrigarria, 23 bilobi paleokristau eta disko formako bost bilarri oso interesgarritz osatua. Hilarria zirkulu formako barria da, biletu errituari lotua. Astroen gurtzan du bere jatorria: Eguzkiaren geriza eta ilargiarena osagarri dira. Ilargiari balako eduki magiko eta erlijiosoa ematen zaio, dituen ziklo enigmatikoez etengabeko jaiotza, heriotza eta birsortzea adierazten dutelako. Gainera, esanabi antropomorfoa eman zaie: Hildakoaren irudi doia, haren arimak berraragitzea lortu abal izateko.




5. MIKELDI. DURANGO - BIZKAIA

Durangon, Mikeldiko San Bizente basilizaren inguruan aurkitutako "idoloa". Zalantzaszkoak dira bonen jatorria eta esanabia, baina dirudienez antzinako erlijio natural paganoan du bere sorburua, burdin aroan nonbait euskaldunek praktikatzen zuten erlijioan. Antza denez, aketz edo zezen handi baten irudia da, bankartean disko bat duena, aldeetako batean Eguzkia eta bestean Ilargia adieraziz beharbada. Hala, Ama Lurraren mitoa gogorarazten digu, zezen irudiaren jeinu telurikoak irudikatua, zeruko bere bi alabak magalean hartzen dituena.




6. LA OLIVAKO OLIBONDOA

Kondairak dioenez bazen Nafarroako errege bat, ilargi erdiaren semeen aurka borrokan ari zela zauritu eta basolibondo baten oinera joan zena azken arnasa ematera. Haren gizonek zubaitzaren ondoan hurperatu omen zuten. 1149ko udazkenean, monje zistertar talde bat basolibondo borren eremura iritsi zen, otoitz eginez eta eskulanaren bitartez Jainkoarekin topatzera. Ibaia gertu zegoenez leku aproposa zen lurrak ureztatzeko eta errota xumeak bultzatzeko eta borrexegatik eraiki zuten bertan La Oliva monasterioa.




7. KURUTZIAGA. DURANGO - BIZKAIA

Bidegurutzeen erakusgarri bikain hau Durango dago. Barrokismo gotiko nabarmena duen monumentua da eta, dituen ezaugarriengatik, Europa osoan bakarra. XV. mendean, frai Alonso de Mella buru zela, herriko ondasunen eta emakumeen komunitatea defendatzen zuten Fraticelloen beresiaren aurkako prozesuaren espiaziozko monumentu izateko eraiki zuten. Komunitate hartako ebun kidetik gora kondenatu zituzten beriotzara su emanaz.




8. UR BEDEINKATUA

Ura bizitzaren sorburua da. Euria zorioneko bizitzaren iragarpena. Iturri jakin batzuetako urak naturaz gaindiko onbideak ditu. Eremuen gainean ura ibinzatzeak lurra behar duen euria adierazten du. Gatza, gaixotasunaren irudi, uretara bota eta bertan disolbatu eta desegiten da. Erljiorekin eta magiarekin loturiko praktikak dira. Ur bedeinkatua Mariri eskeak egiteko erabiltzen da haren bizilekura joz, edo ekaitza iragartzen duten lainoei laguntza eskatzeko. Gainera, haurrak, etxeak, soroak eta ganadua ibinzatzeko ere erabiltzen da.



9. TXIMINIA

Antzina-antzinako kondairak sortu izan diren lekua, belaunaldi batetik bestera hamaika aldiz euskaraz errepikatu izan direnak baserriko bebeko suaren edo sukalde edo tximiniaren inguruan, kanpoaldean ekaitzaren zaratotsa aditu edo baizearen txistu luzea baserriko hornen pitzaduretatik ezkutuan sartu bitartean, bebeko suaren garrak itzal biburrituak eratzen ari direnean. Bitartean, gaueko jeimuk, Maide, Mairu edo Intxixu, zain daude tximinia borreatik jaisteko eta baserriko kideek utzi dizkieten opariak jasotzeko, ondoren barrespilak eta trikubarriak eraikitzera joateko.



10. UZTALA

Zenbat isilmandatu esan izan dizkieten elkarri abopeka abere zamariiek, amarratuta, ekarrera berrien zain egon izan diren bitartean; zenbat aldiz egon izan diren, itxuraz, alferrik zain, hormara begira, uztai bakar batera kateatuta. Eta, bestalde, zenbat ilusio sumatu izan dituzten haurrek uztaiaren atzetik, zenbat zorioneko itxaropen, txilina bailitzan paretaren kontra jo eta soinu egitean.